

**DIPUTACION FORAL DE ALAVA
ARABAKO FORU ALDUNDIA**

DISPOSICIONES Y RESOLUCIONES ADMINISTRATIVAS

- Decretos Forales del Consejo de Diputados

3.553

DECRETO FORAL 50/1998, del Consejo de Diputados de 26 de mayo, que modifica el apartado 3 de las Definiciones para la aplicación de signos, índices y módulos contenidos en el Anexo I del Decreto Foral 25/1998, de 24 de marzo.

El Decreto Foral 25/1998, de 24 de marzo, actualizó para 1998, los signos, índices o módulos utilizables para calcular el rendimiento neto en la modalidad de signos, índices o módulos del método de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Uno de los módulos utilizados para la determinación del rendimiento neto, en la modalidad de signos, índices y módulos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, es el módulo "personal asalariado".

Mediante Orden Ministerial de 14 de abril de 1998, se han introducido ciertas modificaciones en la Orden de 13 de febrero de 1998, por la que se regulaba para 1998 y 1999 el régimen de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y el régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Concretamente, las citadas modificaciones están relacionadas con la forma de computarse el módulo personal asalariado, tanto en el régimen de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas como en el régimen simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido.

En base a lo establecido en el Concierto Económico, dicha modificación ha sido introducida en el Decreto Foral que regula el régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido en nuestro Territorio Histórico, para 1998 y 1999.

Dada la coordinación existente en la definición del módulo personal asalariado, en el régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido y en la modalidad de signos, índices y módulos, del método de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, se considera conveniente adecuar el contenido de las Instrucciones para la aplicación de los signos, índices y módulos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en lo relacionado con la definición de este módulo, al nuevo contenido establecido en relación con la definición del módulo personal asalariado en el Impuesto sobre el Valor Añadido.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria, de fecha 7 de mayo de 1998.

A propuesta del Diputado Titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada el día de hoy,

DISPONGO:

Artículo Unico.- Se modifica el apartado 3 de las Definiciones para la aplicación de los signos, índices y módulos, contenidos en el Anexo I del Decreto Foral 25/1998, de 24 de marzo, que quedará redactado de la siguiente forma:

"3. Persona asalariada es cualquier otra que trabaje en la actividad.

En particular, tendrán la consideración de personal asalariado el cónyuge y los hijos menores del sujeto pasivo que convivan con él, siempre que existiendo el oportuno contrato laboral y la afiliación al Régimen General de la Seguridad Social, trabajen habitualmente y con continuidad en la actividad empresarial desarrollada por el sujeto pasivo. No se computará como personas asalariadas los alumnos de formación profesional específica que realicen el módulo obligatorio de formación en centros de trabajo.

Se computará como una persona asalariada la que trabaje el número de horas anuales por trabajador fijado en el convenio

XEDAPENAK ETA ADMINISTRAZIO EBAZPENAK

- Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

3.553

50/1998 FORU DEKRETUA, Diputatuen Kontseiluak maiatzaren 26an emana, zeinen bidez martxoaren 24ko 25/1998 Foru Dekretuaren I. eranskinean dauden zeinu, indize eta moduluen aplikaziorako Definizioen 3. atala aldatzen den.

Martxoaren 24an emandako 25/1998 Foru Dekretuaren bidez, zeinu, indize eta modulua eguneratu ziren 1998rako, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren balioespen objektiboan zeinu, indize eta moduluen modalitatea erabili eta etekin garbia kalkulatu behar denerako.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zeinu, indize eta moduluen modalitatean etekin garbia zehazteko erabiltzen diren moduluetako bat "soldata jasotzailea" izeneko modulua da.

1998ko apirilaren 14an emandako Ministro Agindu baten bidez zenbait puntu aldatu dira 1998ko otsailaren 13ko Aginduan, zeina arautzen baitzituen 1998 eta 1999rako bai Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren balioespen objektiboa, bai Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezi erraztua.

Zehatzago esateko, "soldata jasotzailea" izeneko modulua konputatzeko moduari dagozkio aldaketak, eta aipatutako bi erregimenetan dute eragina: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren balioespen objektiboan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen erraztuan.

Ekonomi Itunean ezarritakoari jarraituz, gure lurralde historikoan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezi erraztua 1998 eta 1999rako arautzen duen Foru Dekretuan egin dira aldaketa horiek dagoeneko.

Soldata jasotzaile izeneko modulua definizioa koordinaturik dago Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezi erraztuan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren balioespen objektiboan, eta, beraz, egokia da bi definizioak egokitzea modulu horren definizioari dagokionez; hau da, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren agertzen den definizioaren edukin berriari jarraituz moldatu behar da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zeinu, indize eta moduluen aplikaziorako jarraibideen edukian ageri den definizioa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak 1998ko maiatzaren 7an gai horri buruz bidali duen txostena aztertutik.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.- Martxoaren 24ko 25/1998 Foru Dekretuaren I. eranskinean dauden zeinu, indize eta moduluen aplikaziorako Definizioen 3. atala aldatzen da. Hemendik aurrera honela geratuko da:

"3. Soldata jasotzailea jardueran aritzen den beste edozein da.

Soldata jasotzailetza joko dira subjektu pasiboarekin bizi diren ezkontide eta adin txikiko seme-alabak, subjektu pasiboaren enpresa jardueran ohiz eta etengabe aritzen badira, eta beti ere dagokien lan kontratua badago eta pertsona horiek Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean badaude. Ez dira soldata jasotzailetzat joko lanbide heziketa berariazkoan ari diren ikasleak, derrigorrezko heziketa modulua lantokietan egiten ari direla -eta.

Soldata jasotzailetzat joko dira, eta hala sartuko dira kalkuluetan, dagokien hitzarmen kolektiboak urtean langile bakoitze-

colectivo correspondiente o, en su defecto, 1.800 horas/año. Cuando el número de horas de trabajo al año sea inferior o superior, se estimará como cuantía de la persona asalariada la proporción existente entre el número de horas efectivamente trabajadas y las fijadas en el Convenio colectivo o, en su defecto, 1.800.

El personal asalariado menor de diecinueve años o el que preste sus servicios bajo un contrato de aprendizaje o para la formación se computará en un 60% a efectos de determinar el rendimiento neto en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

No se computarán las personas asalariadas con derecho a los incentivos de carácter fiscal regulados en el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 8/1997, de 17 de junio.

El número de unidades del módulo "personal asalariado" se expresará con dos decimales.

Una vez calculado el número de unidades del módulo "personal asalariado" y a los exclusivos efectos de determinar el rendimiento neto en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, se procederá como sigue:

Si en el año que se liquida hubiese tenido lugar un incremento del número de personas asalariadas, por comparación al año inmediato anterior, se calculará, en primer lugar, la diferencia entre el número de unidades del módulo "personal asalariado" correspondientes al año y el número de unidades de ese mismo módulo correspondientes al año inmediato anterior. Si en el año anterior no se hubiese estado acogido a la modalidad de signos, índices o módulos, se tomará como número de unidades correspondientes a dicho año el que hubiese debido tomarse, de acuerdo a las normas contenidas en este número, de haber estado acogido a la modalidad.

Si la diferencia resultase positiva, a ésta se aplicará el coeficiente 0,60.

Si la diferencia hubiese resultado positiva y, por tanto, hubiese procedido la aplicación del coeficiente 0,60, dicha diferencia no se tendrá en cuenta a efectos de lo previsto en el párrafo siguiente.

A cada uno de los tramos del número de unidades del módulo que a continuación se indica se aplicarán los coeficientes que se expresan:

Tramo	Coficiente
Hasta 1,00	0,90
Entre 1,01 y 3,00	0,85
Entre 3,01 y 5,00	0,80
Entre 5,01 y 8,00	0,75
Más de 8,00	0,70

Disposición Final.-

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava, con efectos desde el 1 de enero de 1998.

Vitoria-Gasteiz, a 26 de mayo de 1998.— El Diputado General, FELIX ORMAZABAL ASCASIBAR.— El Diputado Foral de Hacienda y Presupuestos, JUAN CARLOS PERAL SANTOS.

3.552

DECRETO FORAL 51/1998, del Consejo de Diputados de 26 de mayo, que da nueva redacción a la norma general 2.1.1ª.b) de las Instrucciones para la aplicación de los índices y módulos en el Impuesto sobre el Valor Añadido, contenida en el Anexo II del Decreto Foral 26/1998, de 25 de marzo.

Mediante Decreto Foral 26/1998, de 24 de marzo, se dio cumplimiento para 1998 y 1999, a lo previsto en los artículos 37, 38, 39 y 42 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Dado que, de conformidad con el contenido del Concerto Económico, el Impuesto sobre el Valor Añadido debe regirse por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado, dicho Decreto Foral adaptaba el contenido de la Orden Ministerial de 13 de febrero de 1998 por la que se regulaba para 1998 y 1999 el régimen de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y el régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido, en lo relativo a este último Impuesto.

ko ezarritako orduak lan egiten dituztenak. Hitzarmenik ezean, urtean 1.800 ordu. Urteko lan orduen kopurua hortik gorako eta beherakoa bada, soldata jasotzailearen zenbatekoa proportzio bat izango da, benetan lan egin duen ordu kopuru eta hitzarmen kolektiboko artekoa. Horrelakorik ezean, 1.800.

Hemeretzi urte baino gutxiagoko soldata jasotzaileak, ikasketakontratupekoak, edo prestakuntza-kontratupekoak % 60a bezala kontatuko dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako etekin garbia kalkulatzeko.

Ez dira konputatuko soldata jasotzaileak, baldin 1997ko ekainaren 17an onartutako 8/1997 Araugintza Dekretu Zerga Premiatasunekoan araututako zerga pizgarriak izateko eskubidea badute.

"Soldata jasotzaileak" izeneko moduluko unitate kopurua bi hamarrenekin idatziko da.

"Soldata jasotzaileak" izeneko moduluko unitate kopurua kalkulatu eta gero, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako etekin garbia kalkulatzeko bakarrik, bide hau jarraituko da:

Likidatzen den urtean soldata jasotzaileen kopurua handitu bada -aurreko urtearekin konparatuta-, lehenago eta behin kalkulatu da zein alde dagoen urteko "soldata jasotzaileak" izeneko moduluko unitate kopuruaren eta aurreko urtean modulu horretan zegoen unitate kopuruaren artean. Aurreko urtean zeinu, indize eta modulu bidezko kalkulatu-era erabili ez bada, hori erabiltzekotan aterako ziren unitateak hartuko dira kontuan, zenbaki honetako arauen arabera.

Aldea positiboa izatekotan, horri 0,60 koefizientea aplikatuko zaio.

Aldea positiboa izan bada eta, beraz, 0,60ko koefizientea aplikatu bazaio, aldea ez da kontuan izango datorren lerroaldia aplikatzean.

Moduluaren unitate-kopuruaren tarte bakoitzari koefiziente bat aplikatuko zaio, ondorengo taulan agertzen den bezala:

Tartea	Koefizientea
1,00 arte	0,90
1,01etik 3,00 arte	0,85
3,01etik 5,00 arte	0,80
5,01etik eta 8,00 arte	0,75
8,00tik gora	0,70

Azken xedapena.-

Foru Dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera eragina izango du.

Vitoria-Gasteiz, 1998ko maiatzaren 26koa.— Diputatu nagusia, FELIX ORMAZABAL ASCASIBAR.— Ogasun eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN CARLOS PERAL SANTOS.

3.552

51/1998 FORU DEKRETUA, Diputatuen Kontseiluak maiatzaren 26an emana, zeinen bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren indize eta moduluen aplikaziorako argibideetako 2. arau orokorreko 1.1.b) puntua aldatzen den. Argibide horiek martxoaren 26ko 26/1998 Foru Dekretuaren eranskinean jasota daude.

Martxoaren 24ko 26/1998 Foru Dekretuaren bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 37, 38, 39 eta 42. artikuluetan xedatutakoa bete egin zen 1998 eta 1999rako.

Balio Erantsiaren gaineko Zergak Estatuaren funtsezko arau formelei jarraituko behar die, Ekonomi Itunaren edukinaren arabera, eta, hori dela-eta, aipatu Foru Dekretuak 1998ko otsailaren 13ko Ministro Aginduren edukinera egokitu zuen Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Ministro Agindu horren bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren balioespen objektiboa eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezi erraztua arauti zituen 1998 eta 1999rako.